





Agirre, Alaine.- Oier / Mundura begira bizi da Oier, baina ama gaixotzen zaionean bere barrura begiratu beharko du halaberharrez. Ustez sendoak ziren ideietan arrakala txiki batzuk irekiko zaizkio, eta emozioek dardarka jarriko dute bere izateko moduaren eraikuntza osoa. Jakiteak eta ulertzeak bizitzako gertaera batzuk konpondu ezin dituztenean, bizitzan aurrera egiteaz eta kolpeei aurre egiteaz dihardu eleberri honek. Oierren barne-bidaia honetan beste tripulatazailerik bat gehiago izango da irakurlea, eta ontzi berean joango da beste pertsonaiekin batera, hemen ere lagun izango dituelarik Maren, Libe eta Ane, *Txandaka* bildumako beste liburuetan bezala.



Aladjini, Virginie.- Dinosauroen inbentarioa / Bizia Lurraren gainean orain dela 4.300 urte sortu zela ikasiko dugu *Dinosauroen inbentarioa irudiduna* honen hasieran, eta jarraian bizidunen historiaren mugari batzuk aipatzen zaizkigu, sorrera hartatik gaur egun arte. Liburuan 47 dinosauro espezie azaltzen dira, garai geologikoen arabera banaturik: Triasikoa, eta orduko *Mussaurus patagonicus*, adibidez; Jurasikoa, non agertzen zaigun *Diplodocus carnegii*, besteak beste; eta Kretazeoa, *Tyrannosaurus rex*-en garaia.




Andrés, José Carlos.- Dinosauro bat adoptatu / Alek animalia bat adoptatu nahi du, baina ez daki ziur zein nahi duen. Txakurra, katua, oiloa... egun batean bata eta hurrengoan beste. Egund batean arrautza bat aurkitzen du eta etxera eramaten du. Ezetz jakin zer animalia jaio zen arrautza hartatik?



Añorga, Pello.- Zupankapaloak / ZER DA ZUPANKAPALOAK LIBURUA? BESTIARIOA edo DISPARATARIOA? LELOEN feria edo JITANJAFOPEN furia? Astoaren ARRANTZA edo ahuntzaren gau erdiko EZTULA? BASAKIRTENKERIA mintza edo BUFONKERIA distira? Kale gorrietako blusa edo asfalto beltzeko IRAGARKIEN autobusa?



Arrieta, Yolanda.- Bizenta txiki / Aspaldi hartan ere baziren emakume argiak. Horietako bat: Bizenta Mogel Elgezabal. Euskarazko lehen emakume idazlea izan omen zen. Nolakoa ote zen txikitan? Ezagutu nahi?



Arrieta, Yolanda.- Mari Xor / Geure herentziatik sorturiko maitagarri-ipuina duzue Mari Xor. Euskal Herrian kokatuta dago, baina mundu osoan uler daiteke: unibertsala da. Jaso dugun bezala doakizue, jantziz berrituta. Maitagarri-ipuin bat, XXI. mendean. Zergatik, ez?



Ballesteros, Xosé.- Hiru hartzak / Robert Southey poeta ingelesak 1837an argitaratutako herri ipuinaren bertsio batetik abiatuta, Xose Ballesterosek egindako egokitzea da. Jatorrizko bertsioan, hartzen etxean baimenik gabe sartzen zena ez zen neskatila bat, aguretxo bat baizik. Baina ez zen hori aldatzen zen gauza bakarra, ondorengo egokitzen beste aldaera batzuk agertuko ziren. Horrela, etxean sartzen zena azeria zen, eta geroago, neskatila bat, Urrezko Kizkurtxoak izenez ezaguna izango zena.



Budde, Nadia.- Bat, bi, hiru, banpiro / Liburuak errepikapenean zein hainbat egoera eta jokaeratan dauden pertsonaia arraro eta baldarren jolas kateatuan oinarritzen den eskema agertzen du. Oraingo honetan, orriotan ageri den figura-saila bere itxura beldurgarria dela-eta nabarmentzen da: banpiroak, mamuak, munstroak eta eskeletoak, lehenengo begiratuan, behintzat, desatseginak edo arriskutsuak diren edo zori txarrari loturik dauden animaliekin batzen dira, hala nola, kaparrak, sugeak, marrazoak, krokodiloak, katu beltzak edo saguzarrak.



Budde, Nadia.- Bat, bi, hiru, txiruliru / Otsoak eta txerriak, saguak eta untxiak, katuak eta txakurrak, hontzak eta hartzak dira lagun-talde dibertigarri eta katramilatsu honetako hitzordura gonbidaturiko animalietako batzuk. Nola ukitu jostagarriak, hala humorea eta trazu lodiko pintzelkada koloretsuez egindako irudiak dira inondik ere liburuaren erakargarri.




Cantini, Bárbara.- Barrez lehertzeko moduko istorioa / Mortina, **Mortina** neskatoa da, baina ez besteak bezalakoa: neska zontzia da. Villa Dekadenten bizi da izeko Angustias eta beti berarekin dabilen Betilunekin, bizirik edo hilda dagoen jakitea zaila den txakurrarekin batera. Mortinak bere adineko lagunak izan nahiko lituzke, haiekin jolastu eta ondo pasatzeko, baina izekok ez dio uzten besteen aurrean agertzen; izan ere, jendea ikaratuko ke. Halako egun batean ezusteko aukera du: Halloween jaia! Mortinak ez du mozrorrik behar... Baina zer gertatuko da gainerako umeak Mortinak mozrorrik ez daramala jabetzen direnean?




Coppo, Marianna.- Istorio bat / Bazen behin orrialde zuri bat. Ez oso denbora luzerako, ordea. Besoak gurutzatuta gelditu edo zerbait egin; aspertu edo dibertitu. Jarrera kontua da azken batean. *Istorio bat* liburuko pertsonaien artean, bakar batek erabakitzen du denbora aprobetxatzea; besteek, berriz, nahiago dute egonean egon, egin behar duten lanaren zain egon. Honetaz eta hartaz ari diren bitartean, *Godoten esperoan* izenekoan bezalaxe, ez dira ohartzen beren laguna kolorez eta abenturaz beteriko mundu bat eraikitzen ari dela baliabide bakar batzuekin: lapitz batzuk eta mugarik gabeko irudimena.




Dios, Olga De.- Hiru begiko igela / Hiru Begiko Igela leku kutsatu batean hazi da. Oso jauzi handiak egiten ditu gertatzen ari dena ulertzeko asmoz. Laster ohartuko da GAUZAK aldatu nahi dituela... Lortuko ote du halakorik bakarrik egitea? Konponbide komunak bilatzera adoretzen gaituen ipuina.




Falk, Nick.- Urrezko arrautzagatik lehian / Japoniako zokorik zokoenean, Hokkaido irlako goi-goiko mendixketan, baziren izugarritzko bi menditzar. Dragoiaren Letaginaren goi-goian ninjak bizi ziren. Tentel hutsak ziren ninjak. Ez zegoen haiek baino irrizale eta txantxazaleagorik. Tigrearen Atzaparraren gailurrean samuraiak bizi ziren. Sekula ez zuten irribarrerik egiten, are gutxiago txisterik kontatzen. Ninjak eta Samuraiak bizitza osoa zeramaten elkarren artean lehia latzean, norgehiagoka.




Falk, Nick.- Shogunen altxorraren bila / Ninjak eta Samuraiak bizitza osoa zeramaten elkarren artean lehia latzean, norgehiagoka. Honshu-n, Japoniako irlarik handienean, bada Tokio izeneko hiri bat. Gauerdia zen, eta ilunpean lapur bat, beltzez goitik behera, lasterka zihoan hiriko kaleetan barrena. Shōgunen gaztelurantz zihoan zuzenean eta Oguma-za, Hartz Handia, Shōgunen altxor kuttuna lapurtzera zihoan. Mendeku bila baitzeturren lapurra.




Fox, Mem.- Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi / *Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi* liburu irudidun goxoa da, oraindik irakurtzen ez dakitenei eta irakurle hasi berriei zuzendua. Testu errimadun erraza du, egitura errepikakorra eta metatuz doazen esapideak. Munduko hainbat bazterretan sortutako haurrak erakusten dizkigu, elkarren arteko berdintasuna azpimarratuz: hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi. Testuaren erritmoak ozenki irakurtzera laguntzen du bai eta jendearen eskuhartzea ere.




González, Olalla.- Barbantxo / Genero bereko beste hainbatek bezala, “Barbantxo” honek ere maila pedagogiko altua du eta lehen irakurleen pentsamoldea eratzen laguntzen du; izan ere, herri ipuinak arbasoen kulturaren eta egungo mundu modernoaren arteko topagunea dira. Historia familia giro babesgarri etxekoi batean kokatzen da; hala ere, tamaina txikiko protagonistarengan konplexuak eta ahuleziak sustatzetik urrun, mezu positiboa igortzen du: Barbantxo indartsua da, ekimena du, sortzen zaizkion arazoak ulertzen eta konpontzen daki eta, gainera, kasu honetan, amaiera zoriontsua du.




Hernández, Daniel.- Bidaia luzea / Errefuxiatuen dramaaren garai honetan, Daniel Hernandez Chambers eta Federico Delicadoren lan ezinago egoki eta beharrezko honek hausnartzera bultzatzen gaitu begirada,aldi berean, samur eta gogorrarekin: samurra, gatazka baten alderik humanoena islatzen duelako, hegaztien metafora lagun; gogorra amaieragatik, errealite gordinarekin topatzera garamatzalako. Irudiak deskriptibo eta naturalistak dira –elementu zaindu sinbolikoak baztertu gabe- eta mezua azpimarratzen duten plastizitate handiko irudiak dira, emozioak sentiarazten dituztenak: tristura, gabezia, akidura...




Iñáñez, Daniel.- Ados! / Gogoia norberaren buruaren barruan bizi da. Gosea, ordea, norberaren sabelaren barruan! Baina batzuetan elkarrekin entzuten ditugu eta nahastu egiten gara



Igerabide, Juan Kruz.- Euskal herrietako ipuin gaiztoak / Maitagarriak eta sorginak airearen eta ezerezaren tarte-tartean bizi dira. Badira zirrikituak haiek ikusteko, gardentasunean ikusten dakitenentzat: haurrentzat alegia. Badira sorgin maitagarriak, bere makilatxo eta guzti, auzokoei laguntzen dietenak; eta badira sorgin gaiztoak, amaren edo aitaren lekua hartzen dutenak, eta ez dute atsedenik izaten haurrak galbidera eraman edo hondatu arte.



Isern, Susanna.- Daniela Pirata / Danielak, kosta ahala kosta pirata izan nahi du Baina Kaiman Beltzako piratek ez dute euren itsasontzian neskarik nahi. Zer gertatuko ote da Daniela etortzean? Lortuko ote du pirata izateko ametsa gauzatzea?




Kazabon, antton.- Emiliren desabenturak / Batzuentzat dibertigarria da Emili, besteentzat, gafea. Nahiz eta beldurrak airean ibili zenbaitetan, gehienetan barrez lehertzen amaitzen dute bere lagunak. Emili dibertigarria ala gafea den jakiteko, bere desabenturak irakurtzea, onena.

Arrarik arra


Leo Lionni



Lionni, Leo.- Arrarik arra / Arrarik arra Leo Lionniren klasiko bat da. Har zuhur bat du protagonista, ederki moldatzen dena hainbat hegaztik irentsia ez izateko. Haren abenturak hasten dira bere isatsa zenbat neurtzen duen jakin-minez dagoen txantxangorri batekin. Bide horretatik, intsektu burutsua joango da neurtzen flamenkoaren lepoa, tukanaren mokoia, eta istorioan agertuko diren beste hegazti batzuen anatomiako atal bitxiak. Harik eta, berriz ere irentsia izateko arriskuan dagoela, hartxoak etekin ederra aterako dio bere adimenari eta irudimenari onik ateratzeko ataka berritik, irakurleak harrizko dituen modu batez.



Martínez de Lezea, Toti.- Nur eta ortzadar txoria / Laster izango dira Bilboko jaiak eta Nur Larrabetzun dago oporretan. Gurasoekin egin du plana arratsalde batean ferietara joateko, barraketara. Nurrek ondo pasatzea besterik ez du buruan: Ur-txirristan behera jaistea, dardoak jaurtitzea globoak lehertzeko... baina iritsi bezain laster, Nur ahoa zabalik geratu da: Ezin du sinetsi! Aspalditik zeukan “hegan” egiteko ilusioa, eta han aurrean, urrutixeago, belardi batean, zer egongo, eta... globo erraldoi bat, ortzadarraren koloretakoa, bere saskia eta guzti! Une horretan hasiko gara beste abentura bat bizitzen, beste lurralde bat, beste ohitura batzuk ezagutzen.



Martirena, Dani.- Cosimoren katiuskak / Cosimo eta parke txiki bat dira protagonistak. Cosimok zuhaitz batean eraiki du etxola, eta hortik inguruari erreparatzen dio. Egileek Italo Calvinoren *Il barone rampante* liburu ezagunaren erreferentzia erabili eta gaurkotu dute, Cosimo haurrari baliabide berriak eman dizkiote eta, gizartean kokatuz, edertasunaren aldarrikapena zabaldu dute.



Mazo, Margarita del.- Nire hartz handia, nire hartz txikia eta ni neu / Hartz bat izateak abantaila handiak ditu, eta bi izateak... askoz gehiago! Liburu goxo eta samurra txikiekin irakurtzeko.



Novelli, Luca.- Kaixo, Gea naiz: unibertsoan bakarra den planeta baten egiazko historia / Unibertsoan bakarra den planeta baten egiazko historia ikusgarria. Planeta hori Gea bihurtu dela azaltzen da; hau da, izaki bizidun guztion Ama handia dela. Historia hau espazioa hasten da, eta gurekin eta gure inguruan jarraitzen du. Gea gure Lurra delako.




Pintadera, Fran.- Kandido eta besteak / Denak gara desberdinak. Premisa horrekin ageri zaigu Kandido: pertsona xelebrea, inguratzen duen munduaren aurrean den bezalakoa azaltzeko premia duena, onartua izateko premia duena. Harrigarria da hain testu soil honek nola eragiten duen hain gogoeta sakon eta beharrezkoa, gure gizarte zail eta katramilatu honetan.




Redbeard, Odín.- Baldar bikingo eta kanpaldi basatia / Baldar bikingoaren irakasle barriak Otto Hezur-Birrintzaile du izena, eta bikingo peto-petoa da! Baldar irrikaz dago eskolako kanpaldira joan, eta basoan ehizan aritzeko, esploratzeko eta abenturak bizitzeko. Baina ibilaldi luze amaiezina eta bare txigortuen platerkada handia nahikoa izango dira Baldarren poza uxatzeko. Iluntzen hasten duenean, apur bat ikaratuko da bikingo txikia... troll ugari baitabil basoan barrena...




Serrano, Pilar.- Gaur ez zara jolastuko / Ana oso urduri zegoen. Emma, neskato berria, eskolara iritsi zenetik amesgaiztoa bizi zuten ikaskideek. Emmak denen gainetik egon nahi zuen, denei agindu... Baina zenbaitek ezin izan zuen jarrera hori jasan eta gauzak aldatze bidean jarri ziren.



Ungerer, Tomi.- Lagun berriak / Beltzen familia bat beste auzo batera aldatu da. Bere urtebetetzean, Rafi txikiak ez du nor gonbidatu oraindik ez duelako lagunik, baina gurasoek opari egindako erremintei esker, erabaki du bere lagun propioak egitea eta irudiak eraikitzea gai birziklagarriak erabiliz. Egun batean Ki ezagutuko du, auzoan bizi den Asiako bikote baten alaba, eta honek bere burua eskainiko dio panpinak janzteko arropa josteko. Hala, auzokide izateaz gain, lagun min ere bilakatuko dira, komunean duten zaletasunak batuta, hain zuzen, sormenak. Ez da faltako etorkinak izategatik eta behar dituzten gaiak zabortegitik hartzeagatik mesfidantza erakutsiko dienik...



Valverde, Mikel.- Jack Txikiren balada / Jack Txiki txerri margolari bat da, baserri batean lasai bizi dena. Lasaiegi, agian. Kasualitatez, egun batean pirata itxura zuen gizonkote lotsagabe bat iritsi zen. Sorbalda gainean zeraman loroak salatzen zuen. Jackek, orduan, ideia bat izan zuen: loroz mozorratzea abenturak bizitzeko. Une horretan, ezin imaginatu abenturak ez direla beti batek nahi bezala suertatzen. Hori bai, hark bizitakoa kontatzea merezi du, aparteko abentura izan baitzen!



Vincent, Gabrielle.- Ernesto eta Zelestina, Eguberriak etxean / Eguberriak ospatzeko nahikoa da Zelestinak adina gogo eta irudimena izatea; bere lagun Ernesto, ordea, kezkatuago dago neguko hotzarekin eta festa hori antolatzeko beharko luketen eta ez duten sosarekin. Baina, momentuko desilusioez haratago, Zelestina beti berearekin ateratzen da. Ernesto, on-puska eta eskuzabala bera, bere izaera arrazionala gainditu eta hitz emandakoa betetzeko prest azalduko da, Zelestina ez zapuzte aldera.



Ez da nire errua! / Eta bat-batean, danba! A zer ustekabea, behia jeztera zihoan emakumearena... baina ez da izan... ez behia, ez astoa, ez txerria, ez txakurra, ez katua, ez txita, ez eltxoa... inork ez da gertatutakoaren erruduna. Orduan, nork du... triskantzaren errua? Istorio aldrebes eta entretenigarri honek egitura kateatua eta biribila du, eta ez du falta umorerik. Erruari buruzko hausnarketa ironikoa proposatzen du. Pertsonaia eromenezkoen sail baten bidez, Christian Voltzek, bete-bete sartzeko gaitu bere-berezkoa duen imaginarioan. Ehuna, txapa, zura eta zenbait material birziklatu erabiltzen diren collagea du teknika.